

FAMILIA ARTEAN

BIZI-ITURRI GARA

SAIOA 7 URRATSETAN

1. AURKEZPENA
2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK
3. BIZIPENA
4. JAINKOARI ENTZUN
5. ALKARRIZKETAN JARDUN
6. OTOITZEAN ADIERAZO
7. ETXERA EROAN...

1. AURKEZPENA

Saio honetan, honako galdera hau egin gura dogu: **kristau garala dinogunean, zertan jarten dogu arreta?, zer egiten dogu desbardin?**

Zelan azaltzen deutsegu gure seme eta alabei kristau batek egiten dauana, kristau baten bizimodua?

Bizitzako arlo guztietan, garanaren barri emoten dogu, horixe da-eta jakinarazo daikeguna, ez besterik.

Kristau lez, fedeari, Eleizari,... dagokionez, bakotxak ibilbide bat izan dau bere kristau bizitzan. Ibilbide horretan, danok izan doguz inguruan eragin deuskuen persona esanguratsuak. Eta beharbada, une jakin batean, fede heldu, arrazoitu eta konprometitura urratsa emongo genduan ala emon barik geratuko ginan... Aita eta ama lez, iritsi ete gara puntu horretara, bidean ala "stand by" egoeran ete gagoz?

HASIERAKO JARDUNBIDEA

Hasi baino lehen, lehengoak gogora ekarri daiguzan.

- 1 - Gogoratu **gure bizitzetako** unerik **nabarmenenak**
- 2 - Gogoratu **fedea azaldu izan dan** zure bizitzako uneak

Lerroaren gainean, geure denpora-lerroa marraztuko dogu eta bertan, bakarka, bikotean eta familian bizi izan doguzan eta persona lez osotasuna jadesten lagundu deuskuen une sakon horreek (positiboak, negatiboak, pozgarriak, mingarriak,...) idatziko doguz.

2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK

IHINZTAGAILUA

“Ume bat parkean jolasten ari zan. Tronpari dantzarazoten eutsan, eta tronpa dantza eta dantza ebilen, jira eta buelta bere buruaren inguruan.

Azkenean, lurrean pirritan joan zan soropila ureztatzen ziharduan ihinztagailuraino.

Gu biok bardinak gara, esan eutsan tropak ihinztagailuari. Norberekoikeriaren sinbolo gara, geure buruaren inguruan jiraka bizi garalako.

Baina zure bizitzak ez dau zerikusirik nire bizitzagaz, erantzun eutsan ihinztagailuak. Zuk zeure buruarentzat baino ez dozu dantzan egiten eta zorabiatuta eta lurrean bueltaka amaitzen dozu; nik, oster, jiraka dihardut barruan daroadan ura zabaltzeko eta ingurua biziz beteteko... (...).”

Ihinztagailuaren antzeko izan gura dogu gure eguneroko bizitzan. Gure ingurua biziz bete gura dogu eta seme-alabei geure fedea transmititu gura deutsegu. Saio honetan, zelako ihinztagailu garan eta ze eginkizun dogun aztertuko dogu.

3. BIZIPENA

Beste ezer baino lehen, ze eratako ihinztargailu garan jakin behar dogu. Zelako sinisteduna naz?

HELDUEKIN

Zer esango geunke geure burua sinistedun lez aurkezteko? Bateatuta nago eta lehenengo jaunartzea egin dot, fededuna naz eta aginduak beteten dodaz, fededuna naz, baina ez naz eleizara joaten...

Zertan oinarritzen gara geure burua holan agertzeko? Ze fede-esperientzia dogu? Otoitz egiten ete dogu? Eukaristian parte hartzen ete dogu? Noiz? Zelan? Jokaeraren inguruko gai moraletan, zerk gidatzen gaitu?

Nire ustez, zelako fededuna naz?

Fededun lez deskribatzen edo identifikatzen gaituen gauza guztiak idatzi daikeguz panpinan. Horretarako, marrazkiez, sinboloez, berbez... baliatu gaitkez.



Espainian egindako azterlan batean¹, lau eratako nortasun sinistedunak azaltzen dira:

ESPERIENTZIAREN ARABERAKOA

Gertatzen jakozan zorioneko edo zoritxarreko gauzetan oinarritzen dau bere esperientzia erlijiosoa: langabezia, heriotza, bakardadea, gaixotasuna, porrota, edo kontrakoak, lana aurkitu, sendatu, azterketa gainditu, hartu-emonari berrekin... Bere jokaeran, otoitza, eskaria, esker ona agertzen dira.

MORALAREN ARABERAKOA

Bere esperientzia erlijiosoa batez be esperientzia moral lez bizi dau, hau da, ona dalako zer egin behar dan kontuan hartuta. Jainkoa, batez be, instantzia morala da. Bere bizimoduan, garrantzitsuak dira besteen aldeko eskaintza, eskuzabaltasuna, betebeharrak beteteko ardura...

ALKARTEAREN ARABERAKOA

EHonako fededunak alkarteagazko loturan, besteakaz bat egitean, besteakaz batera bizitako fedean eguneratzen dau bere sinistea, ospakizun edo ohikuneetan edo talde txikietan parte hartuz.

BOKAZINOAREN ARABERAKOA

Fedea Ebanjelioarenganako erantzun pertsonal lez bizi dauana, tradizinoagaz bat eginik eta historian eraginez. Euren fedea heldutasunez eta konpromisoz bizi daben kristauak dira.

4

Nire marrazkia eta sinistedun izateko 4 era honeek konparatuko dodaz.

Noren antza dot batez be? Nolakoa izan gurako neuke?

¹Tornos, A eta Aparicio R. *¿Quién es creyente hoy?*, PPC, Madril 1995

... Orduan, tronpak, zera galdetu eutsan ihinzttagailuari:

-Baina, ez ete da zu ur barik geratu eta ureztatzeari itziko deutzazun unerik helduko?

Ihinzttagailuak erantzun eutsan:

-Hori ez jat sekula gertatuko; beti nago sarera konektatuta eta horrek eten barik elikatzen nau sekula ur barik geratu ez naiten eta holan nire ingurua biziz beteten jarraitu daian.

Guk, bakarka, bikotean, familian... elikatzen ete dogu gure fedea?

... Tronpak, pentsakor, galdetzen jarraitu eban.

-Baina, ziur zagoz ur hori ona danaz? Zelan dakizu zure inguruko bazter guztietara heltzen dana?

-Ez dakit, baina besteei on egiten ari nazala sinisten dot.

Eskaintzen ete deutzagu seme-alabei fede-esperientziak bizitzeko aukerarik? Zelako esperientziak dira?

UMEEKIN

Jesus nire adiskidea da, gehiago eza-gutu nahi dot, baina, nork hitz egingo deust Jesusi buruz? Ondoko marrazkian, Jesusi buruz hitz egingo deusten personen izenak idatziko doguz.



FAMILIAN

Familian alkartu eta bakotxak bere panpinaren inguruko azalpenak emongo deutzaz gainerakoei.

4. JAINKOARI ENTZUN

Jesusek erantzun eutsan: «Jainkoaren doea zein dan eta edatekoa nork eskatzen deitsun jakingo bazendu, zeuk eskatuko zeunskio berari, eta harek ur bizia emongo leuskizu».

Joan 4, 10

«Egarri dana Betor Neugana eta edan begi».

Joan 7, 37-38

Azkenik, esan eban: «Eginda dago! Neu naz Alfa eta Omega, hasiera eta amaiera. Egarri danari neuk emongo deitsat doan biziaren iturburutik. Horixe izango dau irabazleak ondare, eta Jainko izango nau ni eta nik bera seme».

Apokalipsia 21, 6-7

«Basahuntza irrikaz erre kara lez, halantxe ni zuregana, ene Jainko».

Sal 42, 2-3

5. ALKARRIZKETAN JARDUN

ZERTAN AGERTZEN DA, GAUR, KRISTAU IZATEA?

Jesusi, apurka-apurka, gure bihotzean harrera egin eta bertan izan, bere bizimodua geure eginez. Holan, Jesusek besteengan agertzerak emon euskun Jainkoa ezagutu.

KRISTAU EK, GAUR:

IRAGARRI EGITEN DABE:

- Jainko Aita-Ama antzematen dabe
- Nazareteko Jesusen antzera biziaren saiatzen dira
- Barri Ona zabaltzen dabe euren inguruan

OSPATU EGITEN DABE:

- Otoitzaren bidez Jainkoagazko hartu-emon personala bizi dabe
- Fedea anai-arrebakaz, alkartean, ospatzen dabe

LEKUKOTASUNA EMOTEN DABE:

- Apaltasunez bizi dira, beti ahulenez arduratuz
- Doakotasunetik eta zuzentasun, bake eta adiskidetzaren alde jarduten dabe
- Familia, auzo, gizarte zuzenago, ekologikoago eta adiskidetuagoaren alde jarduten dabe

Eztabaidarako:

Bat zatoz gaurko kristauari egotzitako ezaugarri honeekaz? Zure ustez, zeintzuk dira garrantzitsuenak? Zer gehituko zeunke? Gustuko zeunke honako bizimodua?



Jainkoaren Hitza entzun eta ihinztagailu eta tronparen metafora irakurri eta orain arte landutakoa kontuan hartuta:

Ihinztagailuan, gure kristau izatea aldatzeko edo hobetzeko egingo doguzan gauzak eta guzti hori seme-alabakaz bizitzeko bideak jarriko doguz.



6. OTOITZEAN ADIERAZO

Jauna, irakatsi eidazu otoitz egiten. Lagundu eidazu munduan zure arrastoak aurkitzen. Lagundu eidazu begiratzen eta, gauzetan, personengan, nire bizitzako arpegietan, keinuetan, ekintzetan,...zure ARPEGIA ikusten.

Jauna, irakatsi eidazu otoitz egiten. Lagundu eidazu zure urratsak nire bizitzan entzuten. Lagundu eidazu zure AHOTSA entzuten: ahotsetan, garrasietan, negarretan, barreetan, solasaldietan, eskarietan, kexuetan, zalantzetan, zure AHOTSA.

Jauna, irakatsi eidazu otoitz egiten. Lagundu eidazu zure mezua nire bizitzan ezagutzen. Irakatsi eidazu zerbitzua, eskaintza, apaltasuna, alaitasuna, ontasuna, zuzentasuna, bakea, ausardia, banatzea, emotea, sinistea... zer dan eta Zeuregan ulertzen.

Jauna, irakatsi eidazu bizitzen. Lagundu eidazu jarduten, maitatzen, negar egiten, burrukatzen, itxaroten, lan egiten, amets egiten... dodanean,

Zu nigaz zagozala ulertzen.

7. ETXERA EROAN...

TEgunero, oheratu aurretik, egunean zehar guretzat garrantzitsua izan dan pertsona batengan edota gertaera batean pentsatuko dogu eta, ondoren, ihintzagailuaren mangan idatzi.

Astean behin, familian batuta, izen eta gertaera horreek gogora ekarri eta benetan garrantzitsuak diranak nabarmenduko doguz, zergaitik diran garrantzitsuak aztertu eta Jainkoari eskerrak emongo deutzaguz guztiengaitik.

 IDTP

 Bilboko
Gozzaitegia
OBISPADO DE BILBAO